



BIZIPOZA

2021
urteko
memoria

ELKARTEAK

Aurkibidea

01. Hitzaurrea	3
02. Bizipozen funtzioa: izaera, misioa eta bisioa	3
03. Bizipozen helburu nagusiak	4
04. Bizipoza-ko elkarteak, bazkideak eta boluntarioak	4
Elkarteak	4
Bazkideak	6
Babesleak	7
Boluntarioak	8
05. Bizipozen egitasmo ildoak eta 2021 urtean aurrera eramandako ekimenak	9
1. Elkarten eta haiek lantzen duten errealitatea gizarteratzeko ekimenak	
1.1. Jarduerak	9
MUNDU BERRI BAT GUZTIONTZAT kantu eta bideoklipak 1 proiektuaren zabalpena	9
Proiektuaren informazioa	9
2021 Urtea. Proiektuaren zabalpena	11
Proiektuaren aurkezpen ekitaldia	11
Sare sozialetan eta webgunean zabalpena	11
Komunikabideetan zabalpena	11
Cd-dvd-liburuxkaren salmenta	15
Mundu berri bat guztiontzat 2 proiektuaren sorkuntza	16
Proiektuaren informazioa	16
Partehartzaileak : elkarteak, euskal sortzaileak eta babesleak	17
Cd-dvd-liburuxka-ren salmenta	17
Dokumentala eta dokuweb-a	18
Irrien lagunak-ek irria aldizkaria-rako sortutako ipuinak	19
Bizipoza jaia	20
Ari! Sormena eta mugimendua proiektua	24
Proiektuaren informazioa	24
Komunikabideetan zabalpena	26
Durangoko azoka	30
1.2. Gizarte eragile desberdinekin elkarlana	30
Agerraldia. Bizipozen aurkezpena eta jaia	30
Bizipozen aurkezpena gares-en	31
Bizipozen jaia gares-en 2022 urtean	32
Euskalgintzaren kontseilua. "Batuz aldatu" hizkuntza-politiketan eragiteko adostasun sozialen ekimena	32
Sormene galdakaoko sorkuntzaren plaza. Bizipozen aurkezpena	32
Bizipoza, hezkuntza konparatuaren Frantziako elkarteak eta upv-ehuk antolatutako 18. Hitzaldian	34
02. Elkarten arteko ezagutza eta kohesioa	35
V. Jardunaldia : covid-19a bizipozan: bizipenak, gogoetak eta ikaskuntzak	35
V. Jardunaldia komunikabideetan	38
03. Komunikazio orokorra	39
Webgunea	39
Sare sozialak. Facebook, twitter, instagram	39
Komunikabideak	40
04. Boluntario sarea indartzeko ekimenak	41
Ehu-ko gizarte langintza fakultateko ikasleekin boluntariotzaren inguruko solasaldia	41
Bizipoztu zaitez, izan bazkide izan boluntario kanpaina	41
Sare sozialen bidez aurrera eramandako kanpaina	41
Bizipozen webgunean informazioa	41
Tokian tokiko boluntariotza: bizipoza km0	42
05. Bilboko egoitza eta gida didaktikoen proiektua	42
Bilboko pisua	42
Gida didaktikoen proiektua eta helburua	42

01. HITZAURREA

Jarraian aurkezten dugun txosten honek, Bizipozako elkarteei Bizipoza Elkartek 2021 urtean aurrera eramandako ekimenen berri ematea du helburu. Egitasmo hauek aurrera eramatea, zuen laguntzak, elkarlanak egin du posible, guztion arteko elkarlan honen ondorio da Bizipoza aurrera eramaten ari den ibilbidea. **Guzti honegatik beraz, mila esker bihotz-bihotzez, Bizipoza elkartearen izenean.**

Txosten hau ondorengo atalez osatzen da:

- › Bizipozaren funtzioa: Izaera, misioa eta bisioa
- › Bizipozaren helburu nagusiak
- › Bizipozako elkarteak, bazkideak, babesleak eta boluntario sarea.
- › Bizipozaren egitasmo ildoak eta 2021 urtean aurrera eramandako ekimenak

02. BIZIPOZAREN FUNTZIOA: IZAERA, MISIOA ETA BISIOA

- › Bizipoza irabazi asmorik gabeko **gizartegintza egitasmoa** da: izaera bereziko gaiak lantzen dituzten eta haur eta familien ongizatea helburu duten elkarteei elkarteei laguntza afektiboa eta materiala eskaintzea du xede eta elkarte , haur eta familia hauek transmititzen dituzten baloreak jasoaz aberastu, hezi eta gizarteratzea.
- › Bizipoza-k **bizipoza** du misio: hainbat zailtasun bizi dituzten familiekin eta elkarteekin batera poza partekatzea, euskaraz eta sorkuntzatik. Elkarte guzti hauek transmititzen dituzten baloreak gizarteratzea da bizipozaren misioa.
- › Bizipoza-k **auzolana** du bisio: deneriko herritar, talde eta erakundeek osaturiko bolondres-sarea osatzea gizartegintzaren poza bizitzeko.

Euskaraz elkartasuna sustatu nahi dugu auzolanaren bidez bizipoza nagusitu dadin.



INFORMAZIO +

03. BIZIPOZAREN HELBURU NAGUSIAK

- › Izaera bereziko gaiak azalaraztea ume zein heldu euskararen bidez sentsibilizatuz.
- › Errealitate horiek lantzen dituzten elkarteei laguntza afektiboa ez ezik, eguneroko lanerako dituzten premiei erantzuteko baliabide funtzionalak lortzeko laguntza eskaintzea.
- › Gizartegintzan euskaraz eta bizipozez jardun nahi duten herritarrei auzolan egitasmo eraginkorra eskaintzea, boluntario sare bat osatuaz.



INFORMAZIO +

04. BIZIPOZA-KO ELKARTEAK, BAZKIDEAK ETA BOLUNTARIOAK.

ELKARTEAK

Ondokoak dira gaur-gaurkoz Bizipozako elkarteak:

Bizipozako elkarteak gaur-gaurkoz 36 dira, guztiak izaera bereziko gaiak lantzen dituzten elkarteak, hainbat eskubide bete gabe eta behar bereziak dituzten haur eta familiek osatutako elkarteak, haurren eta familien ongizatea helburu dutenak.

Elkarteak Bizipoza-ren balore transmisoreak dira, Bizipoza eta bertako kideak baloreetan aberastu eta hezten dituztenak.

Elkarte anitzak Bizipozako partaide izateak elkarteen arteko ezagutza eta elkar laguntza ere bultzatzen du, elkarlanak ematen duen indarrak elkarteen lana eta ezaugarri bereziak gizartera ezagutarazteko baliatuz.

Ondokoak dira, gaur gaurkoz, Bizipoza-ko kide diren 36 elkarteak:

1. **ADEMGi:** Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitza Elkartea
2. **AFESTA:** Euskadiko Tourette Syndromearen eta bestelako osasun-arazoen familien Elkartea
3. **AGIPASE:** Gipuzkoako guraso bananduen elkartea.
4. **AMPGYL:** Gay, Lesbiana, Bixesual eta Transexualen Gurasoen Elkartea.
5. **ARNASA:** Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren Elkartea
6. **ASPANIF** guraso elkartea, euren umeak erbi ezpaindun edo ahosabai hautsiekin jaioak izaki eta, batibat, Euskal Herrian jarduten duena.
7. **ASPANOgi:** Haur Minbizidunen Gurasoen Elkartea.

8. **BANAIZ BAGARA:** Euskal Herrian bizi diren etorkinekin euskara ikasteko moduak eskaintzen ditu.
9. **BEROA:** Gipuzkoako harrera familien elkarteak.
10. **BIHOTZEZ:** Kardiopatiadun haurren familien Elkarteak.
11. **BIAK BAT:** Elbarritasun bat duten lagunei eta gizartean bazterturik geratzeko arriskua dutenei laguntzeko txakurrak hezten ditu.
12. **CHERNOBILEN LAGUNAK:** Ukraniako Doviria gizarte etxearekin lan egiten du Gipuzkoako elkarteak.
13. **NAIZEN:** Naizen, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako adintxikiko transexualen familiak osatzen duten elkarteak da.
14. **DRAVET:** Dravet Sindromea dutenen Fundazioa.
15. **ETIOPIA UTOPIA:** Wukron eta hedaduraz, Tigray eskualdean, garapenerako lankidetzan lagundu eta laguntza humanitarioa ematea duena.
16. **FSDPV:** Euskadin down sindromea duten familien elkarteak.
17. **GEHITU:** LGTBI kolektiboaren berdintasun sozialaren alde lan egiten dute.
18. **GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOA:** Kirol egokituaren sustapena eta antolaketa Gipuzkoan.
19. **OPORRAK BAKEAN:** Sahara herriaren alde lan egiten duen elkarteak.
20. **GURE NAHIA:** Gipuzkoako Gaixotasun arraroak dituzten haurren aldeko Elkarteak.
21. **GURE SENÑ EAK:** Bizkaiko Txorierrin gaixotasun arraroak dituzten haurren familien Elkarteak.
22. **HIRU HAMABI:** Garuneko kaltea jasan duten adin txikikoen familien elkarteak
23. **JUNEREN HEGOAK:** Beharra duten beste hurrei laguntzeko sortutako elkarteak.
24. **KALE DOR KAYIKO:** Ijito Kultur Elkarteak.
25. **PAUSOKA ELKARTEA:** Beharrian bereziak dituzten haurren gurasoak.
26. **SEASKAKO INTEGRAZIO BATZORDEA:** ahalmen urriko haurren eskolatzea sustatzen du ikastoletan.
27. **UME ALAIA:** Adopzio Familien Elkarteak.
28. **ULERTUZ:** Bizkaiko Lurraldean entzumen urritasuna duten neska-mutilei eta gazteei eta horien familiei laguntza zuzena sustatzen eta eskaintzen duen elkarteak.
29. **ASPANOVAS:** ASPANOVAS Bizkaia, Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarteak.
30. **SANFILIPPO UMEEN EUSKAL ELKARTEA:** Euskadiko Sanfilippo haurren senide eta lagunok osatzen dugu. Gure helburua haurren eta familien bizi baldintzak hobetzea eta bidean aurkitzen dituzten zailtasunak gainditzeko laguntzea da.
31. **MINDARA ELKARTEA:** MINDARAK jardun eremua Oarsoaldea eskualdean du (dibertsitate funtzionala duten pertsonak artatzeko Gipuzkoako elkarteak). Elkarteak sortze- helburu du aniztasun funtzionala duten pertsonen autonomia sustatzea, gizarte, gorputz, kirol eta jarduera osasungarrien bidez.
32. **SUPER HACHE ELKARTEA:** Gaitz larria edo onkologikoa duten umeentzako eta ikerkuntzarako laguntza elkarteak.

33. GUZTIOK: Beharrian bereziak dituzten Bortzirietako haurren gurasoak.

34. NDANK-NDANK: Elkarrekin mistoa da, pertsona senegaldar eta euskaldunak osatuta. Helburu bikoitzarekin sortu zen elkarte, kulturartekotasuna sustatzeko batetik, eta bestetik, Senegalen garapenerako lankidetzak bultzatzeko.

35. NUALA ELKARTEA: Aniztasun funtzionala edo gaitasunen aniztasuna duten pertsona eta lagunak dira, irabazi asmorik gabeko elkarte bat sortu zutenak. Beraien helburua pertsona horien ikuspena eta ongizatea bermatzea da. Inklusioa aktiboki promozionatu nahi dute gizartearen. Beraien seme-alaben gaitasunetan sistek dute eta gizartearekin partekatu nahi dituzte. Elgoibar eta inguruko herrietan aritzen dira gehienbat lanean.

36. MAREA URDINA: Helburua bakarra da, **INKLUSIOA** (bai, letra larrietan). Inklusioa ez bakarrik eskolan, baita kirola, kultura eta aisialdian ere. Urola bilarako aniztasun funtzionala duten pertsonak herrian sortzen diren aktibitate eta dinamika ezberdinetan leku bat izan dezaten egiten dute lan, horretarako herriko agente eragile ezberdinei (udal, kirol elkarte, musika eskola, edozein ekimen...) inklusioaren "bataurrekoak" jartzen saiatzen dira.

BAZKIDEAK

Ondorengoak dira gaur-gaurkoz Bizipozako bazkideak:

Elkarteko kide dira, urtean kuota bat ordaintzen dute oinarritzko beharrei erantzuteko, eta haien esku dago, gainerakoak entzunda, elkarrearen egiturak antolatu eta osatzea, eta urteko egitasmoa eta diru kontuak onartzea.

Bazkide izateko aukera dute Bizipozarekin kolaboratzen duten elkarteek eta edozein eratako gizarte eragileek.

Gizarte eragileen betebeharren artean urtean 1000 euroko ekarpena egitea dute. Urteko kuotarekin batera, aukeran dute bestelako ekarpen ekonomikoak egiteko aukera.

Bizipozako elkartearen kasuan, hala nahi duten guztiak bazkide izateko aukera dute, eta urteko kuota bakoitzaren ahalmenaren arabera erabakiko da, gutxienez 200 eurokoa izanik.

Ondorengoak dira gaur-gaurkoz bazkideak:

- › Irrien Lagunak
- › Katxiporreta
- › Elkar
- › Hik Hasi
- › Ikastolen Elkarrekin
- › AEK
- › HUHEZI unibertsitatea
- › Algaraklown
- › Naizen elkarte.
- › Aspanif elkarte

- › Dravet elkarte
- › Euskal Herriko Down Syndrome Federazioa
- › Gehitu elkarte
- › Gure Senñ eak elkarte
- › Kale Dor Kayiko elkarte
- › Pausoka elkarte
- › Bihotzez elkarte
- › Aspanovas elkarte
- › Gipuzkoako kirol egokituaren federazioa
- › Aspanogi elkarte.
- › Super Hache elkarte
- › Ndank Ndank
- › Marea Urdina

BABESLEAK

Ondorengoak dira gaur-gaurkoz Bizipozako babesleak:

Bakoitzaren neurriko ekarpen ekonomikoa egiten diote proiektu osoari edo Bizipozarekin batera proiektu zehatz bat elkarlanean aurrera eramaten duten eragileak edo norbanakoak.

Norbanako babesleekin batera, ondorengoak dira gaur egun Bizipoza elkartearen babesle eragileak:

- › Danobatgroup
- › Orona
- › Irizar
- › Fagor
- › Laboral Kutxa
- › BBK Fundazioa
- › Kutxa Fundazioa
- › Gipuzkoako Foru Aldundia
- › Maier
- › Eusko Jaurlaritza
- › Mondragon Lingua
- › Ekonomisten euskal elkargoa
- › LKS

- › Ekin
- › Kukai Dantza Taldea
- › Athletic Club Fundazioa
- › Real Sociedad Fundazioa

Eta hauekin batera ere, badaude norbanako babesleak ere, bakoitzak aportazio ekonomikoa egiten diona elkarteari.

BOLUNTARIOAK

DENBORA ESKAINTZEN DUTEN BOLUNTARIOEN SAREA

Norbanako boluntarioek, bere denbora eskainiz -Bizipoza jaian edo bestelako ekitaldietan lan bat eginez, elkarteen ekintzetan denbora eskainiz-, edota bestelako edozer emanez -ikastaro bat eman, emanaldi bat artisten kasuan, eta abar- hartzen dute parte elkartean.

Boluntario izateko aukera dute: norbanakoek.

EKARPEN EKONOMIKOA EGITEN DUTEN BOLUNTARIOEN SAREA

Bizipozan norbanako boluntario sare bat dago, bakoitzak nahi duen neurriko aportazio ekonomikoa egiten diona elkarteari.



INFORMAZIO +

05. BIZIPOZAREN EGITASMO ILDOAK ETA 2021 URTEAN AURRERA ERAMANDAKO EKIMENAK

ELKARTEEN ETA HAIK LANTZEN DUTEN ERREALITATEA GIZARTERATZEKO EKIMENAK*

1.1. JARDUERAK

**MUNDU BERRI BAT 1
GUZTIONTZAT**
kantu eta bideoklipak
proiektuaren zabalpena

PROIEKTUAREN INFORMAZIOA



2020ean sortu genuen MUNDU BERRI BAT 1 GUZTIONTZAT proiektua, 11 elkartekin ekoiztutako lana, 34 euskal sortzaileekin elkarlanean egina. 12 abestiz eta 11 bideoklipez osatutako CD-DVD-Liburuxka sortu genuen.

11 elkartek egunerokoan lantzen dituzten gaiak eta haien errealitateari buruzko abestiak eta bideoklipak sortu genituen, elkarte bakoitzaren mezua musika, hitza eta irudiaren bidez gizarteratzea helburu dutenak.

Hauek izan ziren 2020 urteko proiektuan parte hartu zuten elkarteak eta euskal sortzaileak

ELKARTEA	IDAZLE/BERTSOLARIA	ABESLARIA
ASPANIF	Unai Iturriaga	Josu Zabala eta Iñaki Garitaonandia "Gari"
GEHITU	Bihotz Gorospe	Yogurinha Borova
ASPAÑOGI-ASPAÑOVAS	Amaia Agirre	Eñaut Elorrieta
BIHOTZEZ	Nerea Ibartzabal	Xabi Solano
HIRU HAMABI	Julio Soto	Enrique Villarreal "El Drogas" eta Oihana Fernandez "Afu"
OPORRAK BAKEAN	Aner Euzkitze	Aitor Gorosabel eta Miren Narbaiza
INTEGRAZIO BATZORDEA	Amets eta Maddalen Arzallus	Amets eta Maddalen Arzallus
BIAK BAT	Leire Bilbao	Anabel Arraiza eta Mikel Urdangarin
KALE DOR KAYIKO	Arkaitz Estiballes	Itziar Ituño
ULERTUZ	Miren Amuriza	Aiora Renteria
BIZIPOZA	Igor Elortza	Pirritx, Porrotx, Marimotots eta diskoan parte hartzen duten abeslari guztiak
JOXE MARI AUZMENDIREN KANTUA	Joxe Mari Auzmendi	Andoni Tolosa "Morau" eta Maite Larburu



2021 URTEA. PROIEKTUAREN ZABALPENA

PROIEKTUAREN AURKEZPEN EKITALDIA

2021eko Urtarrilaren 23ean proiektuaren aurkezpena burutu genuen eta bertan Bizipozako komunitate guztia bildu zen. (Babesleak, elkarteak, bazkideak, boluntarioak, sortzaileak).



Urtarrilaren 23tik aurrera zabalkunde zabala izan da.

SARE SOZIALETAN ETA WEBGUNEAN ZABALPENA

Sare sozialetan (facebook, instagram, twitter) eta webgunean astero, urtarrilaren 23tik martxoaren 3 bitarte bi bideoklip aurkeztu dira.

KOMUNIKABIDEETAN ZABALPENA

Komunikabide desberdinetan oihartzun nabaria izan du proiektuak:

Elkarrizketa orokorrak

- › ETBko informatiboetan GAUR EGUN eta TELEBERRI (bideoa Bizipoza Youtube kanalean: <https://www.youtube.com/watch?v=ntQn2CeJzaQ>)
- › Bilbo Hiria Irratia: <https://www.bilbohiria.eus/62840?fbclid=IwAR2ste9WpYObMwAqrwkRjiMLVJA-7JHa-tqVB3u-vyFYZHBHPfpbDGzp2YM>
- › Kultur Sharea: <https://kultursharea.eus/bizipoza-elkarteak-mundu-berri-bat-guztiontzat-izeneko-egitasmoa-aurkeztuko-du-larunbatean/>

- › Kazeta.eus:
https://www.kazeta.eus/fr/info_kz/20210121/mundu-berri-bat-guztiontzat-proiektua-abiatuko-du-bizipoza-elkartek
- › Bizkaie!.eus:
<https://bizkaie.biz/1611221076862>
- › El Correo:
<https://www.elcorreo.com/zurekin/bizipoza-elkartek-mundu-20210120163436-nt.html?vca=dgtk-rrss-ecr&vso=tw&vmc=social&tcode=am43MWsx>
- › Noticias de Gipuzkoa:
<https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/cultura/2021/01/24/elkarlanean-mundu-berri-bat-eraikitzen/1084064.html?fbclid=IwAR2UDnPL84YVUpZwxatDwnNjCUMazErVMBIYx4cgM8FB8iCATJNklysLQSQ>
- › NAIZ:
<https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20210123/bizipoza-elkartek-dozena-bat-abesti-etabideoklip-sortu-ditu-guztiontzat-moduko-mundua-josteko?fbclid=IwAR2c6XvDE1IVtqV2GoklW1Fxcn3ynB-LS57DXfRMscJ2lmKcStwzbgp5Gwk>
- › BERRIA:
https://www.berria.eus/albisteak/192694/mundu-berri-bat-guztiontzat-lana-aurkeztu-du-bizipozak.amp.html?_twitter_impression=true&fbclid=IwAR335dykQKIXCAj-WSDC7d2D1q_FQ2a-XqpxmEurCPJXI2VKGbC3QaOERc4
- › Xorroxin Irratia:
<https://erran.eus/mendialdea/1611825372474-bizipoza-elkartearen-mundu-berri-bat-guztiontzat-egitasmoaz-elean>
- › Kronika: Joxe Mari Auzmendiri omenaldia aurkezpenean:
<https://kronika.eus/urumea/1612525751418-omenaldi-xumea-joxe-mari-auzmendiri-mundu-berri-bat-guztiontzat-proiektuarekin>
- › Bizkaie!:
<https://bizkaie.biz/1613641236499>
- › Guraso.eus :
<https://guraso.eus/mundu-berri-bat-guztiontzat/>
- › Txintxarri:
<https://txintxarri.eus/lasarte-oria/1611839539561-abestuz-gizarteratu-bizipoza-oinarri-hartuz>

Elkarteei elkarriketak

- › Eta Kitto!: AUKERAK ETA ZU bideoklipa– Oporrak Bakean
<https://etakitto.eus/berriak/gizartea/aitor-gorosabelek-eta-miren-narbaizak-mundu-berri-bat-guztiontzat-egitasmoan-parte-hartu-dute.html>
- › Guaixe: AMIGO bideoklipa, BIAK BAT elkarteak:
<https://guaixe.eus/altsasu/1613051680534-biak-bat-elkartearen-bideoklipa-larunbatean-mustu-zen>
- › Hamaika Telebista (goizeko magazina): AMIGO bideoklipa, BIAK BAT elkarteak:
<https://www.hamaika.eus/bideo-saioak/gurean-gaur/gure-begiz/leire-elizegi-alaitasunez-eta-aldarrikapenez-gizarte-inklusiboa-eraiki-nahi-dugu.html>

- › Hamaika Telebista (goizeko magazina) MASKORRAREN IPUINA bideoklipa, ULERTUZ elkarteak:
<https://www.hamaika.eus/bideo-saioak/gurean-gaur/gure-begiz/berta-legarra-musukoarekin-komunikazioa-zaila-da-ume-gorrentzat.html>
- › Biba zuek! ETB – aurkezpena eta BIHOTZEZ elkarteak:
https://www.eitb.tv/eu/bideoa/biba-zuek/7176/183681/ainhoa-sanchez/?fbclid=IwAR0JZ6ZbfAE2VhMLJhnBPJ7xq9mGmgfTSVCFEYk_Z5GegSizjPqdJP4rnoQ
- › Biba Zuek! ETB: HEMEN GAUDE bideoklipa – HIRU HAMABI elkarteak:
https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/biba-zuek/bideoak/oso/7819274/bideoa-ibon-vega-hiru-hamabiren-bizipoza-proiektuaz-eta-garun-paralisisaz/?fbclid=IwAR3u2-PtvKWIDCcvhBi9Smd9SPVR9-jtevMY1ejYqGCUVpaFZ_qp79I4AnU
- › Biba zuek! ETB: BIZITA DA GORPUTZA, ASKATASUNA BIHOTZA bideoklipa, GEHITU elkarteak:
<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/biba-zuek/bideoak/oso/7835003/bideoa-yogurinha-borovari-elkarriketahomosexualitateaz-eta-gehitu-bizipozaraz/>
- › Biba zuek! ETB: HAIZEAREKIN JOLASEAN bideoklipa, ASPANIF elkarteak:
https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/biba-zuek/bideoak/oso/7851088/bideoa-ezpain-eta-ahosabai-hautsiaren-patologia-zer-da-eta-zertan-du-eragina/?fbclid=IwAR3EHuRRmVuOoiMI2weGNBZGGz9NWzAT4Dp7ayrDcOTkQht_3jpllpOgiBA
- › Biba zuek! ETB: BI(H)URRITASUN bideoklipa, INTEGRAZIO BATZORDEA:
- › 1.- <https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/biba-zuek/bideoak/oso/7867483/bideoa-christophe-texierri-elkarriketa-seaskaren-integrazio-batzordeaz/?fbclid=IwAR04hICX7vN2opfQCHscz9Fq5z8-KQhtHhFJ1UN6ShUanU5gGIQrQ2uDDEc>
- › 2.- <https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/biba-zuek/bideoak/oso/7867447/bideoa-maddalen-eta-amets-arzallusek-bihurritasun-kanta-sortu-dute/?fbclid=IwAR0FFANqIqfoVNTXJkn2vJ3liwc0EkeldJSCRnTmb9F5AYBk82NhlTF6LA>
- › Biba Zuek! ETB: ZATOZ GURE KERARA! Bideoklipa, KALE DOR KAYIKO elkarteak:
<https://guraso.eus/3-12-garuneko-kaltea-jasan-duten-adin-txikikoen-familien-elkarteak/>
- › Biba zuek! ETB: AMIGO bideoklipa, BIAK BAT elkarteak:
https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/biba-zuek/bideoak/oso/7900379/bideoa-josune-azpiroz-biak-bat-elkartean-eta-animalien-terapiaz/?fbclid=IwAR2vvtmg-wU6ac20KqH8fxjV2C-wDmk0Oc_oc45UEtmtNDyd5ikdHQWlww
- › Biba zuek! ETB: AUKERAK ETA ZU bideoklipa, OPORRAK BAKEAN:
- › 1.- <https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/biba-zuek/bideoak/oso/7911742/bideoa-ana-elosegi-negar-egin-genuen-ez-zetorrela-esan-genionean/?fbclid=IwAR2PL03EYR1JK7ybmG3kJ729ZO1dyOrPT2GEfvKNZt44fEkFVHm3qoPpXs0>
- › 2.- https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/biba-zuek/bideoak/oso/7911679/bideoa-aner-peritz-eta-xabier-euzkitze-oporrek-bakean-eta-saharari-buruz/?fbclid=IwAR1fx33m-wC5iygDYLFkobSBOBuxpH-E5dZ_QwQRRoudewYTVDgyPh2976M
- › Biba Zuek! ETB: PIRATEN INDARRA bideoklipa, ASPANOVAS eta ASPANOGL elkarteak:
<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/biba-zuek/bideoak/oso/7935031/bideoa-nerea-remirok-ewingen-sarkoma-izan-du-eta-minbiziaz-aritu-da/>

- › Biba Zuek! ETB: MASKORRAREN IPUINA bideoklipa, ULERTUZ elkarteak, AGURRA:
https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/biba-zuek/bideoak/osoak/7946421/bideoa-laura-iturbeormaetxea-eta-nerea-virto-entzumen-urritasunaz/?fbclid=IwAR2-fJ-kysOOBH-AqULzLfio893SKKfoAisr7w_3Ztki6gn1TsPlmsCNr4
- › Hala bedi! Irratia: HIRU HAMABI elkarteak:
<https://halabedi.eus/bizipoza3-12/?fbclid=IwAR14enYjLQj9ya0-Eex8wB7k2PddHMQqmJ8T8H7-5n5dJU414skfU62ybNk>
- › Segura Irratia: GEHITU elkarteak:
http://segurairratia.eus/bizipoza-elkarteagehITU-elkarteak/?fbclid=IwAR15HHWFSxFKTbmpBtO_MDTWmaK_m0n12uEjXjRZtJCj8BbZ4ifJc2iJOyw
- › Graffiti Irrati saioa- Radio Euskadi: HIRU HAMABI, GEHITU, BIHOTZEZ elkarteak abestiak aurkezten:
<https://www.eitb.eus/es/radio/radio-euskadi/programas/graffiti/audios/>
- › Bizkaia Irratia : Bizipoza eta ULERTUZ elkarteak:
<http://www.bizkaiairratia.eus/albisteak/ikusi/Alkarlanean+guztiontzako+mundu+barri+bat+eregiten>
- › Kurutziaga Ikastolako Blog: ASPANIF elkarteak:
<https://kurutziagaikastola.eus/bloga/malenentzako-esperientzia-ahaztezina-izan-da-bizipozaren-proiektu-honetan-parte-hartzea/>
- › Guraso.eus: HIRU HAMABI ELKARTEA:
<https://guraso.eus/3-12-garuneko-kaltea-jasan-duten-adin-txikikoen-familien-elkarteak/>
- › Guraso.eus: ASPANOGL eta ASPANOVAS elkarteak:
<https://kurutziagaikastola.eus/bloga/malenentzako-esperientzia-ahaztezina-izan-da-bizipozaren-proiektu-honetan-parte-hartzea>
- › Guraso. Eus: OPORRAK BAKEAN:
<https://guraso.eus/aukerak-eta-zu-oporak-bakean/>
- › Guraso.eus: BIHOTZEZ elkarteak:
<https://guraso.eus/bihotzez-elkarteak-orbainen-azpian-dagoen-errealitatea-ikustarazten/?fbclid=IwAR3Oqp3K2pRR2vVgdX5E9sT5o1WFIZsfFvI3TSHm9-3uohU4PtFyoMRXVXc>
- › Guraso.eus: BIAK BAT elkarteak:
<https://guraso.eus/biak-bat-txakurrekin-batera-bizipoza-sustatzen/>

Sortzaileei elkarriketak:

- › Urolako Hitza: XABI ZABALARI:
<https://urolakosta.hitza.eus/2021/02/11/orbainen-azpiko-munduen-doinua/>
- › Bustuariko Hitza: EÑAUT ELORRIETARI, PIRATEN INDARRA bideoklipa:
<https://bustualdea.hitza.eus/2021/03/04/bizipozez-bizipozako-elkarteen-gizarteratzea-bultzatuz/>
- › Eta Kitto!: AITOR GOROSABELI, AUKERAK ETA ZU bideoklipa
<https://etakitto.eus/berriak/gizartea/bizipoza-elkarteen-mundu-berri-bat-guztiontzat-ekimenean-hartu-dute-parte-aitor-gorosabel-eta-miren-narbaizak.html>

- › Euskalerrria Irratia: ANABEL ARRAIZAri, AMIGO bideoklipa:
<https://euskalerrriarratia.eus/irunerria/1616001618132-anabel-arraiza-bizipoza>
- › ETBko Etabaidan saioan, ITZIAR ITUÑOren elkarriketan, tarte bat eskaini zioten ZATOZ GURE KERARA! Bideoklipari (bideoa Bizipozaren Youtube kanalean:
<https://www.youtube.com/watch?v=uo1gj37e3Ds&list=PLQy3vyAR5ojyBPnsdWs6u7-4fQiq7XN3i&index=16>)

CD-DVD-LIBURUXKAREN SALMENTA

- › CD – DVD – Liburuxka, Elkar denda fisikoetan eta online egon da salgai urte osoan zehar. Bestetik, Noticias de Gipuzkoa eta Berriak ere promozio bereziak egin dituzte salmenta indartzeko.

www.bizipoza.eus orrialdean ere salgai dago CD-DVD - Liburuxka.

Sensibilizazio lanketak ikastetxeetan



Proiektuaren zabalpenaren ondorioz, hainbat ikastetxeetan kantu eta bideoklipak oinarri hartu eta lanketa desberdinak aurrera eraman dituzte. Ederra izan da elkarlan hau ere, eta aurrera begira Bizipoza elkartetik sortzera goazen gida didaktikoetarako adibide praktiko eredugarriak izango dira hauek.

Ondorengo ikastetxeetan burutu dituzte ekimenak eta beraien sare sozialetan argitaratu dituzte ekimenak:

- › Lardizabal Herri Eskola LH4.
- › Herri Ametsa Ikastola LH 2A.
- › Haurtzaro ikastola.
- › Arizmendi ikastola.

BIZIPOZAREN WEBGUNEAN INFORMAZIOA:

Webgunean informazio eta bideoklip guztiak ikusgai:



Mundu Berri Bat 2 Guztiontzat proiektuaren sorkuntza

PROIEKTUAREN INFORMAZIOA



LABORAL
kutxa

FAGOR

DANOBATGROUP

Irizar

gipuzkoa
kutxa solidarioa
kutxa FUNDATZA

› 2021 urtean, MUNDU BERRI BAT GUZTIONTZAT 2 kantu eta bideoklipak, BIZIPOZA elkartearen osatzen duten 12 elkarteekin ekoiztutako lana osatu dugu, euskal sortzaileekin elkarlanean sortua: 12 letragilek kantuen letrak sortu dituzte, 10 abeslari eta 4 musika taldek abestuko dituzte kantuak eta Xabi Zabala konpositoreak sortu ditu kantu guztiak. Aurten, 11 abesti eta 11 bideoklip sortu ditugu eta guztiak CD-DVD-Liburuxka formatuan ere sortu ditugu.

› Liburuxka formatuan, elkartearen ilustrazio bana, bakoitzaren deskribapena, ipuintxoak eta abestiaren letra topatuko ditugu.

› Elkartearen eta euskal kultur sortzaileen arteko elkarlana da elkartearen kantu eta bideoklipen proiektuaren oinarri nagusia. 12 elkarteak egunerokoan lantzen dituzten gaiak eta haien errealitateari buruzko abestiak eta bideoklipak dira, elkarte bakoitzaren mezua musika, hitza eta irudiaren bidez gizarteratzeko helburu dutenak.

PARTEHARTZAILEAK : ELKARTEAK, EUSKAL SORTZAILEAK ETA BABESLEAK.

› Hauek dira 2021 urteko MUNDU BERRI BAT GUZTIONTZAT 2 proiektuan parte hartu duten **elkarateak eta euskal sortzaileak**:

ELKARTEA	LETRAGILEA	ABESLARIA
ADEMG	JON MAIA	ANARI
CHERNOBILEN LAGUNAK	OIHANE PEREA	JURGI EKIZA
EH-ko DOWN SINDROME FUNDAZIOA	ANDONI EGAÑA	MOTXILA 21 TALDEA
BEROA	ALAIA ETA JON MARTIN	ALAIA ETA JON MARTIN
ETIOPIA UTOPIA	ANE LABAKA	DEMODE QUARTET
GIPIZKOAKO KIROL EGOKITUA + MINDARA	MAIALEN LUJANBIO	AMAK
GURE NAHIA + GURE SEÑEAK	ONINTZA ENBEITA	ALEX SARDUI
SAN FILIPPO	GOTZON BARANDIARAN	FRANCIS (Doctor Deseo)
SUPER HACHE	JON GARMENDIA (Txuria)	MAREN
GUZTIOK	SUSTRAI COLINA	PETTI-ESTITXU PINATXO

› Hauek dira 2021 urteko MUNDU BERRI BAT GUZTIONTZAT 2 proiektuan parte hartu duten **babesleak**: Danobatgroup, Laboral Kutxa, Fagor, Irizar, Kutxa Fundazioa.

CD-DVD-LIBURUXKA-ren SALMENTA



- › CD- DVD-liburuxka Elkar denda fisikoetan eta online egongo da salgai 2022 urteko urtarilaren 29tik aurrera. Bestetik, Noticias de Gipuzkoa eta Berriak ere promozio bereziak egin dituzte salmenta indartzeko.

www.bizipoza.eus orrialdean ere salgai egongo da CD-DVD-liburuxka

BIZIPOZAREN WEBGUNEAN INFORMAZIOA



Kantu eta
bideoklipak

Dokumentala eta dokuweb-a



2018 urtean Danobatgroup-ekin batera abiatutako proiektua eta 2019 urtean bukatu ziren sortze lanak. 2019 urteko urrian eman genion hasiera dokumental eta dokuwebaren aurkezpenei hiriburuetan eta eskualdez eskualde eta 2020 urteko otsaila bukaera bitarte luzatu zen zabalpen prozesua.

2021 urtean, dokuweb-a osatu dugu bi elkarte berriren mikrodokumentalak sortuz eta publikatuz: **Ndank Ndank elkartea eta Nuala elkartearen mikrodokumentalak.**

BIZIPOZAREN WEBGUNEAN INFORMAZIOA



Elkarteak



Dokumentala



Prensa

Irrien Lagunak-ek Irria Aldizkaria-rako sortutako ipuinak

2021 urtean, 8 elkarteren ipuinak argitaratu dira Irria aldizkarian. Nuala, Gure Nahia, Mindara, Oporrak Bakean, Beroa, Ndank Ndank, Marea Urdina eta Arnasa elkartearen ipuinak hain zuzen ere.

Bizipoza elkarteak elkarte bakoitzari ipuina PDF formatoan helarazten dio eta Irria aldizkariako 4 ale korreo bidez helarazten dizkio.

Oporrak Bakean elkartearen ipuina adibide:



36



37



38



39



<https://bizipoza.eus/ipuinak/> orrialdean aurkitu daitezke ipuin guztiak.

Bizipoza jaia

2020 urtean pandemia egoerak bultzatuta ezin izan zen Bizipozaren jaia urteroko moduan ospatu beraz, 2021eko martxoan egoerari egokitutako Bizipozaren jaia ospatu dugu (2020ean izan behar zuena). Bizipoza Elkartearen parte den Ndank Ndank elkarteak hartu du jai hau antolatzeko ardura, Bergarako Jardun eta udalarekin elkarlanean.

[illegible]

Ekintza desberdinak burutu dira martxoan zehar:

1- Bizipoza Triviala

Bi trivial mota egon dira:

- *Online triviala*: Euskal Herri osora zabaldu da sare sozialen eta ikastetxeen bitartez. Bi kategoria egon dira, 12 urte beherakoentzat eta 12 urtetik gorakoentzat. Trivial hauek Bizipoza osatzen duten elkarte desberdinen galderak bildu dituzte. Martxoak 1etik 25era egon da aktibo. Berrehun parte hartzailetik gora egon dira. Parte-hartzaileen artean Elkar, Irrien lagunak, Bizipoza eta Katxiporretako sari sortak banatu dira. Trivial honen estekak hauek biak dira:



Bizipoza Elkarteko triviala - 12 urtetik aurrera (google.com)

Bizipoza Elkarteko triviala - 12 urtetik beherakoentzat (google.com)

- *Trivial fisikoa Bergaran:* Bergarako Jardun elkarteak urtero garai honetan trivial bat antolatzen du. Bizipoza jaia Bergaran dela kontuan hartuta, trivialeko galderak Bizipoza Elkartearen bueltan izan dira. Martxoak 15etik apirilaren 15era izan dute Bergararrek parte hartzeko. Herriko leku desberdinetan (liburutegi, eskola, kiroldegi, ludoteka...) galdetegiak eta hauek sartzeko postontziak kokatu dituzte. Apirilak 15ean sari desberdinen zozketa egingo da.

Oso balorazio positiboa egiten dugu ekintza honena. Trivial honen bitartez bergararrak eta baita euskal herritarrek ere elkarte hauen errealitatera gerturatu ahal izan dira modu ludikoan. Gainera, galdetegian Bizipozako web orriak dituen baliabideak jarri dira ikusgai. Beraz material horren berri ere izan dute. Sari banaketarako egin ditugun deietan feedback oso positiboak jaso ditugu hainbat ikastetxe eta baita norbanakoetatik.

2.- Bazkari birtuala - Yassa qanar plater senegaldarra

Martxoak 13an ospatu zen Bizipozako bazkari birtuala. “Yassa ganar” (arroza, oilasko eta kipularekin) dastatzeko aukera egon zen. Euskal Herriko edozein lekutatik parte hartu ahal izan da, Youtuben eta sare sozialetan platera prestatzeko azalpen bideo bat iko baitgenuen.

Bizipozako bazkari birtuala: Yassa. Martxoak 13 - YouTube

Eitb-ko Txoriene programak ere promozioa luzatu zuen.

Bergarrek, gainera, Sirimiri eta Venti jatetxeetan eskuratu ahal izan zuten. Erreserba egiteko aukera zabaldu zen martxoaren 8ak arte tabernetan eta “Eskatu” aplikazioan tiketak erosita, 5 euroren truke.



Ekintza honen balorazioa ere oso positiboa izan da. Bideoak Youtuben zein facebooken ikustaldi mordoia izan ditu. Bergarako jatetxeek 120 eskaera jaso zituzten. Partehartzaile batzuk beraien bazkariko argazkiak bidali zizkiguten.

3.-Mundu berri bat guztiontzat ekitaldi irekia

Martxoaren 13an, arratsaldeko seietan, Bergarako pilotalekuan “Mundu Berri bat guztiontzat” ekitaldi irekia eskaini genuen. 150 bat pertsona gerturatu ziren. Jone Olabarriak eta Martin Bertsok egin zituzten aurkezle lanak. Herriko alkate, Bizipozako Leire Elizegi eta Jardun eta Ndank Ndank-eko bi kiden hitzen ostean sortu berri den Ndank Ndank Elkarteko mikrodokumentala proiektatu zen. Horren ostean, elkarte desberdinetako kideek beraien testigantza adierazi zuten labur (Aspanogi, Oporrak bakean, Aspanif, Gehitu); eta hitzen ostean, proiektu berriko elkarte horietako bideoklipak proiektatu ziren. Aroa Elortzak poesia bidez girotu zuen ekitaldia, eta Bergarako Indai taldeak eman zion ekitaldiari itxiera emanaldi txiki batekin.

[Bizipozaren Jaia 2021 - MUNDU BERRI BAT GUZTIONTZAT ekitaldia - YouTube](#)

Ekitaldi hunkigarri eta polita izan zen. Gerturatutako bergarar zein euskal herriko herritarrek elkarte desberdinen erreallitatea ezagutzeko aukeraz izateaz gain, proiektu berriko materiala ezagutzeko aukera izan zuten ere. Parte-hartzaile zein ikusleen partetik jasotako balorazioa bikaina izan da.

4.- Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin irri, kanta eta dantza

Martxoaren 14an goizeko 11:30ean “Pirritx, Porrotx eta Marimotots”-en ikuskizuna egon zen.

Hamaika elkarte desberdinetako familiekin kantu eta dantza egin zuten. Abesti bakoitzaren hasieran elkarte desberdinen aurkezpena egin zen.

[Bizipozaren Jaia - IRRI, KANTU ETA DANTZA - YouTube](#)

Ekitaldi polita izan zen. Pilotalekua bete zen. Aukera polita izan zen elkarte desberdinetako kideak bildu eta herri mailan ezagutzera emateko.

5.- Bergarako eskoletan Bizipoza tailerrak

Batetik, Bergarako ikastetxeei eta baita Euskal Herriko ikastetxeei martxoan zehar aurrera eramateko proposamenak luzatu genizkien. www.bizipoza.eus web orriak eskaintzen dituen baliabideak aurkeztu genizkien (ipuin animatu, komiki, mikro-dokumental eta bideoklip) eta hauekin lanketa desberdinak egitera animatu.

Poztasun handiz jaso ditugu eskoletatik jasotako irudiak. Hilabete zehar etapa desberdinetan lanketak aurrera eraman dituzte.



Gainera, Bizipoza osatzen duten hainbat elkarte lehen hezkuntzako haurrei tailer desberdinak eskaini dizkiete. Lehen mailako ikasleek Altsasuko Biak Bat elkarteko bisita jaso dute eta txakurrekin terapiak nola gauzatzen dituzten ikusi ahal izan dute. Hirugarren mailakoek, Aspanogiko sentsibilizazio saioa jaso dute, haur minbizidunen inguruan. Bosgarren mailakoek, aldiz, Gipuzkoako Kirol Egokitu Federazioarekin kirola praktikatuko dute aniztasun funtzionala duten pertsonen azalean jarritz. Seigarren mailakoek, Ndank Ndank Elkarteko bisita jaso dute, “Non jaio, hala bizi” sekuentzia didaktikoaren baitan. Tailer horiez gain, bigarren mailako ikasleek “Kontukantoi” ipuin kontalari eta ilustratzaileaz gozatzeko aukera izan dute; eta laugarren mailakoikasleek, munduko jolasak ezagutu dituzte Jardun elkartearen eskutik.

[Bizipozaren Jaia 2021- Bergarako eskoletan Tailerrak - YouTube](#)

Eskolek asko baloratu dituzte tailer eta ekintzak, are gehiago egungo egoeran. Sentsibilizazioarako aukera eskaintzeaz gain, haurrek asko disfrutatu dute.

<https://bizipoza.eus/bizipozaren-jaia/> orrialdean aurkitu daitezke jaieko argazkiak, bideoak, kartela...

BIZIPOZAREN WEBGUNEAN INFORMAZIOA:



Bizipozaren jaia



Prentsa

ARI! Sormena eta mugimendua proiektua

Bizipoza, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa eta Artaziak lehen aldiz elkartu eta 2019 urtean hasiera eman genion **Ari! Sormena eta Mugimendua** proiektuari. Proiektuak gorputzarekin, arteekin eta mugimenduarekin lotutako ekimen berritzaile bat sortzea du helburu, izaera inklusiboa eta genero ikuspegia izango duena, 12 eta 21 urte bitarteko gazteei zuzendua. 2021 urtean amaiera eman diogu proiektuari, material pedagogikoa sortuz eta aurkeztuz.

PROIEKTUAREN INFORMAZIOA

Egitasmoak **3 lan ildo** izan ditu, 2 ildo 2020 urtean garatu ziren eta hirugarren ildo 2021 urtean garatu eta aurkeztu da:

- 1) Lehenengoa **Ikastaro trinko bat izan zen**, eta **Jordi Cortés** koreografo-sortzailea gonbidatu genuen bere ibilbidea azaldu eta dantza inklusiboaren esparruan izan duen esperientzia azaltzera.



- 2) Bigarren ildoan, **10 saio praktiko burutu ziren 2020 urtean**, 12 lagunek osaturiko talde mistoarekin. 12 eta 21 urte bitarteko gaitasun anitzeko gazte hauek, sormen laborategi gisa pentsatutako gunean mugimenduarekin eta gorputzarekin lotutako dinamikak landu zituzten.



- 3) Proiektuaren hirugarren atalak **material pedagogikoa** sortzea izan du helburu, aplikatu den metodologia jaso eta proiektuaren erreplikagarritasuna ahalbidatuko duena. Hirugarren atal hau 2021 urtean garatu da eta 2021 urteko ekainean aurkeztuko genuen materiala.

Proiektu hau Irizar eta Orona Fundazioak babestu dute eta Errenteriako Dantzagunearen laguntza izan du.



Ongi etorri gorpuztza!

Webgune honetan aurkituko duzuna ARI! SORMENA ETA MUGIMENDUA proiektuaren material pedagogikoa da. Material honek talde bat aktibatze gorpuztza-dinamikak eskaintzen ditu, Ion Munduate eta Artziak bideratutako laborategi batean sortuak.

Proiektuaren osagaiak hauek dira:

- #InklusioSoziala
- #GeneroIkuspegia
- #aniztasuna
- #hezkiaditza
- #eskura
- #sormena
- #mugimendua
- #arte
- #Lehiakortza
- #DirenJarduerak
- #kirola
- #JarduerakFisikoa
- #gaitzak
- #ArteBiziak

Begiralea, hezitzailea, irakaslea edota dantzaria bazara eta osagai hauekin bat bazatoz, animatu eta erabili eskaintzen dizugun material hau!

Webgurea sartzearan ikusiko duzun moduan, gorpuztza-dinamiketara iristeko hiru era daude.

1. Intuizioa: hemen dinamika guztiak ezagutu ditzakezu. Erabili zure intuizioa bertan nabigatzeko eta zuk zeuk erabaki ordena, dinamika bat aukeratzeko edota batetik bestera igarotzeko.

2. Ibilbideak: pausoz pauso gauzatzeko hiru saio proposatzen dizkizugu. Aukeratu saioetako bat dinamiken garapen interesgarri bat edukitzeko.

- olagarroa
- esku-dantza
- triangelua

3. Periferia: solte egiteko taldekako proposamenak dira. Aukeratu nahi adina dinamika taldea elkar ezagutzeko.

Esploratu itzazu eta egin zure saioa!

Antolatzaileak: BIZIPOZA, @e629, ekef6d9

Babestak: artaziakoop, Irizar, Orona fundazioa, dantza gunea



KOMUNIKABIDEETAN ZABALPENA

› Federacion gipuzkoa deporte adaptado

<http://gkef-fgda.org/es/noticias/247-curso-intensivo-con-jordi-cortes>

https://www.facebook.com/pg/www.gkef.fgda.org/posts/?ref=page_internal

› Naiz

<https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/20200923/jordi-cortes-koreografo-sortzailearen-ikastaro-trinkoa-errenterian>

› Gipuzkoa solidarioa

<https://gipuzkoasolidarioa.wordpress.com/tag/bizipoza/>

› ADDE


<https://madmimi.com/s/1319501?o=fs>

2021 SORTUTAKOAK: HAUTATUA

<https://www.gipuzkoa.eus/es/web/dantzagunea/-/sortutakoak-hautatutako-proiektuak>

KULTUSHAREA

<https://kultursharea.eus/ari-sormena-eta-mugimendua-proiektuaren-material-pedagogikoa-aurkeztu-dute/>



The screenshot shows the website 'KULTUR SHAREA' with the tagline 'ZABALDU KULTURAREN LEIHO GUZTIAK ETA EUSKARAZ SHARETU'. The navigation bar includes links for HASIERA, GAIAK, ATALAK, HERRIALEKHA, and ZUZKETA. The main content area features a group photo of approximately 15 people wearing face masks, standing in two rows. Below the photo is the article title 'ARI! SORMENA ETA MUGIMENDUA' PROIEKTUAREN MATERIAL PEDAGOGIKOA AURKEZTU DUTE. The article is dated 2021-06-14 and is by KulturSharea. A search bar is visible on the right side of the page.

BIZKAIE

<https://bizkaie.biz/1623665624455>

← → ↻ 🏠 🔒 https://bizkaie.biz/1623665624455 🔍 Buscar 🌐 📧 ☰

GAIAK KOMUNITADEA BILDUMAK AGENDA SARTU

Bizkaie! Albisteak

Ari! proiektuaren material pedagogikoa aurkeztu dabe

Bizkaie! 2021-06-14 11:05 KULTUREA

Material honek talde bat aktibetako gorputz-dinamikak eskaintzen ditu.



BIZKAIE / KULTUREA

- 'Artea Kanean'
- Concha Velasco, Imanol Arias eta Ramón Barea, Arriaga Antzokiaren udako sasoiari
- Bilboko Kalealdia Euskadiko zazpi estreinaldi dakar
- Ari! proiektuaren material pedagogikoa aurkeztu dabe
- Getxoko alkateak Kantauriko urrez betetako botilea emon deuse zazpi gazteri
- Udea kulturaz blai dator Durangora
- 'Ciencia fricción, vida entre especies compañeras' erakusketaa Bilbon
- Bilbok kalean ospatuko dau 721. urteurrena
- Amaia Ezpeidoren abenturak amaierara heldu dira
- 'Ni Nazena naz', bagilaren 25etik 27ra

OARSOALDEAKO HITZA

<https://oarsoaldea.hitza.eus/2021/06/11/ari-sormena-eta-mugimendua-proiektua-martxan-da/>

OARSOALDEAKO HITZA f t i BILATU... SARTU **egin ari** HITZA **7**

ALBISTEAK | AGENDA | BITXIKERAK | DENDA | ZOKKETAK | MULTIMEDIA

Ari! Sormena eta Mugimendua proiektua martxan da

f t i

📍 Errenteria-Oretea **Kultura**

Bizipoza, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa eta Artaziak elkartu dira lehen aldiz. Ari! Sormena eta Mugimendua proiektua martxan jartzeko.



Azoko aurkezpenaren irudi bat. Argazkia: Bizipoza

📅 2021/06/11  Ikerne Zarate

Eguraldia

Pasaia  Ostarrak

Euria: 0mm
Hortazketa: 10%
Larriak: 10%
Suroa: 1000m

20°
23° 17°
5 km/h

Bihar 30° / 18° 

Osteguna 20° / 17° 

Ostirala 19° / 16° 

Larunbete 22° / 14° 

Getxio: Pasaia

Agenda

Ekaina 2021

AL	AR	AR	OG	OL	UR	IG
1	2	3	4	5	6	
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

EL DIARIO VASCO

<https://www.diariovasco.com/culturas/sormena-mugimendua-mota-20210612093218-nt.html>

← → ↺ ↻ 🔍 <https://www.diariovasco.com/culturas/sormena-mugimendua-mota-20210612093218-nt.html> ☆ 🔍 Buscar

MENÚ 🔍 🔔

EL DIARIO VASCO

Cultura | Cine | La Butaca | Libros | Música | Televisión | Zinemaldia | Jazzaldia | Programación TV | Cartelera cine

'ARI!', sormena eta mugimendua mota guztietako gorputzentzat

Bizipoza elkarteak, Artaziak kooperatibak eta Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak elkarlanean burutu dute proiektua, Orona Fundazioaren, Irizarren eta Dantzagunearen laguntzarekin



LO + LEÍDO
El Diario Vasco Cultura Top 50

- 1 **Ona** 'Rocío, yo sí te creo', desde San Sebastián
- 2 **Ona** La accesibilidad a Hondalea divide a los grupos políticos
- 3 Muere el actor estadounidense Ned Beatty a los 83 años
- 4 Danbolinzulo confirma la presencia de dos culturas durante el Paleolítico en Gipuzkoa
- 5 Elena Setién publica un single de su próximo disco 'Unfamiliar Minds'

GARA; GAUR8

<https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/20210611/ari-sarmena-eta-mugimendua-ezberdintasunetik-abiatuz-sortzera-gonbidatzen-duen-materiala>

GURASO.EUS

<https://guraso.eus/ari-sormena-eta-mugimendua/>

guraso.eus KOLABORAZIOAK ALBISTAK AISIALDIA MULTIMEDIA 🔍

Ari! Sormena eta Mugimendua
2021.06.17 - GURASO




Bizipoza, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa eta Artaziak elkarrekin dute lehen aldiz **Ari Sormena eta Mugimendua** proiektua martxoan jartzeko. Proiektuak gorputzaren, artearen eta mugimenduaren lotutako ekimen berritzaile bat sortzea du helburu, sarrera inklusiboa eta genero ikuspegia izango duena. 12 eta 21 urte bitarteko pateri zuzendua.

Jardueren funtzioa egiteko interesa nabarmenki gaitzen duen, kasu askotan, 12 urterik gorako gaitzek. Adin horretatik zurrera egiten saian kirol ekimenak murrizten dira eta hori egiten berriz modu berriekin, edota inguruko kirol ekimenekin jarduerak ez zuzendutako hantre enklavatu egiten, normalean eskaintza baxuak lehiatzen diren egoera berritzaile eta onak eta mutalik bereizten baitira. Era berean, dibertimendu funtzionala duten gaitre onak ez dute ekimen alternatibak, espazio indibiduala eskaintzen duten barne eta esperientziak partekatzeko.


POLIÉDRICA

Magazine + Archivo

<https://www.poliedrica.cat/es/ari-creatividad-y-movimiento/>



BIZIPOZAREN WEBGUNEAN INFORMAZIOA



Durangoko Azoka



2021 urteko Durangoko azokan presente izango gara presentzialki eta online ere. 7 elkarteren materiala izango da salgai eta Bizipozaren CD-DVD-Liburuxka ere.

Bizipoza auzolan kantua ere Durangoko azokako spotify-eko playlist-ean presente dago.

1.2. GIZARTE ERAGILE DESBERDINEKIN ELKARLANA

Agerraldia. Bizipozaren aurkezpena eta jaia

Elkarlan honen helburua, Agerraldian Nafarroa hegoaldean burutuko dituen ekimenen parte izatea Bizipoza elkarte da, elkarlan honen bidez, Bizipoza eta bertako elkarten errealitatea ere zonalde horretan zabaldiaz euskaratik eta euskaraz.

Errigora proiektuaren inguruko informazioa:

<https://www.errigora.eus/>

Agerraldia proiektuaren inguruko informazioa : <http://agerraldia.errigora.eus/agerraldia>

2019 urteko abenduan lehen aldiz bildu ginen Agerraldia, Bizipoza eta Nafarroako elkarteak elkarlanaren inguruan hitz egiteko.

Bertan, Bizipozaren aurkezpena eta Bizipozaren jaia elkarlanean egiteko aukera partekatu zen eta 2020 urtean Bizipozaren aurkezpena Agerraldiaren 2020-2021 agendan kokatzea erabaki zen.

BIZIPOZAREN AURKEZPENA GARES-en

The collage displays a variety of event posters from the Bizipoza 2020-2021 agenda. Key elements include:

- agenda**: A large central poster with the text '2020 - 2021' and 'La agenda en castellano en la página 5 - L'agenda en français en page 5'.
- EUSKALDUNTZEA**: A poster for a workshop titled 'EUSKALDUNTZEA'.
- KIROLA**: A poster for a workshop titled 'KIROLA'.
- JENDARTEA**: A poster for a workshop titled 'JENDARTEA'.
- HEZKUNTZA**: A poster for a workshop titled 'HEZKUNTZA'.
- KULTURA**: A poster for a workshop titled 'KULTURA'.
- BIZIPOZA**: A poster for the Bizipoza event itself.

2021 urteko urriaren 8an Gares-en burutu zen Bizipoza elkartearen aurkezpena.

The banner is a solid blue rectangle with white text and logos. The main text reads 'BIZIPOZA' in a large, bold, sans-serif font. Below it, in a smaller font, is 'AURKEZPENA GARESEN'. Further down, it specifies the date and time: 'URRIAK 8 | 19:00 | VINCULO ETXEA (CASA DEL VINCULO)'. At the bottom, there are three logos: 'BIZIPOZA' (a stylized 'B' and 'P'), 'GARELAKO ELKARTEA' (a stylized 'G' and 'E'), and 'agerraldia' (a stylized 'A' and 'G').

Hemen aurkezpenaren bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=qxBIWylj2E>

BIZIPOZAREN JAIA GARES-en 2022 URTEAN

Elkarlan honen baitan, 2022 urtean Bizipozaren jaia Gares-en egitea da nahia. Honetarako, lanean gabiltza.

BIZIPOZAREN WEBGUNEAN INFORMAZIOA



Bizipozaren
aurkezpena
Garesen

Euskalgintzaren Kontseilua. “Batuz aldatu” hizkuntza-politiketan eragiteko adostasun sozialen ekimena.

Batuz aldatu izena hartu du Euskalgintzaren Kontseiluak hizkuntza-politiketan eragiteko adostasun sozialen ekimenak. Jauzia egiteko garaia da: hizkuntza-eskubideen alde, gizarte kohesioaren alde, euskararen alde. Eta horretarako, ekainaren 19an aurkeztutako dokumentuak hizkuntza-politika berrirako bide-orria izan nahi du.

Bizipoza elkarteak bat egin du ekimenarekin, hizkuntza-eskubideen alde, gizarte kohesioaren alde eta euskararen alde.

Ekimenaren informazioa:

<https://kontseilua.eus/egitasmoak/adostasun-sozialak-eta-politikoak-eraiki/>

Sormene Galdakaoko Sorkuntzaren Plaza. Bizipozaren aurkezpena

Kulturaren sormen arloko egitasmo berritzaileen plaza izateko borondatea dauka **Sormenek**, Galdakaotik Euskal Herri osoarentzat.

Euskarazko kultur adierazpideak aintzat hartuko ditu: literatura, musika, bertsolaritza, antzerkia, ikus-entzunezkoak, dantza, arte plastikoak...

Bost helburu nagusi hauek ditu:

- › *Sormene* plazara gonbidatzea Euskal Herriko kultur proiektu aurrerazaleak.
- › Euskarazko kulturara erakartzea herrialde guztietako euskaldunak.
- › Kulturaren zaleak sortzea eta sustatzea.
- › Sortzaileak izango diren zaleak adoretzea eta trebatzea.
- › Euskal kulturaren transmisioa bermatuko duen espazioa prestatzea.

Sormene proiektuaren webgunea:

<https://sormene.eus/>



Sormene egitasmoak Bizipoza elkarteari gonbidapena luzatu dio Bizipoza elkarteak aurkezteko, Bizipozako elkarteak bertan aurkezteko, dokumental eta dokuweb-a, eta kantu eta bideoklipak Galdakaon aurkezteko, 2021 urteko Sormeneren egitarauaren barruan. Proposamena onartu, eta Galdakaoko eragile, sortzaile eta Bizipozaren artean aurkezpen ekitaldi bat antolatu eta aurrera eraman genuen azaroaren 20ean.

Ekitaldia zuzenean streaming bidez ikusteko aukera egon zen BERRIaren webgunean, HAMAICA TELEBISTA-ren bidez eta SORMENE webgunearen bidez.

19
ostirala

Kurtzeko plazan

10:15 Ikasleentzat bakarrik
Ilustrazio tailerra-1: **Eider Eibar.**

12:00 Ikasleentzat bakarrik
Ilustrazio tailerra-2: **Eider Eibar.**

18:00 Ipuin kontaketa musikarekin: **Bertoko eta urrutiko ipuinak,**
Nerea Ariznabarreta eta Mariano Hurtado.

20:30 Musika kontzertua: **Amak** (Alaitz Telletxea, Maixa Lizarribar, Amaia Oreja eta Kris Solano).

20
larunbata

Kurtzeko plazan

11:30 Musika, bertsoa, literatura, ikus-entzunezkoa: Sortzearen bizipoza,
Bizipoza elkarteak.

16:45 Dantza, musika eta antzerkia-1: **Oa-huetak,** Elirale.

18:00 Dantza, musika eta antzerkia-2: **Oa-huetak,** Elirale.

22:00 Musika kontzertua: **Diabolo Kiwi.**

21
igandea

Kurtzeko plazan

12:00 Komikia eta bertsoa: **Tupust!** komikiaren aurkezpena, bertso saio batez. Komikigilea: **Ainara Azpiazu Axi.** Bertsolariak: **Uxue Alberdi, Oihana Arana** eta **Oihana Iguaran.** Gai-jartzailea: Maite Berriozabal.

17:30 Antzerki obra: **Amatxik Dixit,** Cia Goitibera eta Naita produkzioak.
Antzezleak: Nerea Ariznabarreta, Ander Basaldua eta Gaizka Chamizo. Zuzendaritza: Saioa Iribarren.

18:00 Solasaldia: Gerra eta sorkuntzak. Galdakao Gogora elkarteak.

19:00 Dantza, musika eta bertsoa: **Soka-dantza.**
Parte hartzaileak: Galdakaoko Andra Mari dantza taldea, Iruñeko Duguna dantza taldea, Lekeitioko Etorkizuna dantza taldea, Iurretako dantzariak, Oñatiko Oñatz dantza taldea, Bizkaiko gaiteroak taldea, Oñatiko Aita Madina txistulari taldea, Erika Lagoma, Igor Elortza eta Josu Zabala.


sormene.eus

Ekitaldiaren laburpen bideoa: https://www.youtube.com/watch?v=dsg_Yl2qqqo

Ekitaldiaren bideo osoa:

Binke aldizkariak ekitaldiari buruz egindako albisteak: https://binke.eus/sormene-azken-txanpan-sartu-da-aurkezpen-antzerki-eta-musikaz-beterik/?fbclid=IwAR05jnp06jCM_6dPGGeCPM6_5Y1yVx_JfRMpG3JqaEy1RsofDRfPcZpfy9_M

Bizipoza, Hezkuntza Konparatuaren Frantziako Elkarteak eta UPV-EHUK antolatutako 18. Hitzaldian



Urriaren 28 eta 29an AFDECEk (Hezkuntza konparatuaren frantziako elkarteak) eta UPV-EHUK antolaturiko 18. Hitzaldi internazionala burutu da. Bertan haurtzaroa eta gaztaroa landu dira. Bizipoza elkarteko laguna den Peio Manterolak egindako ikerketa eta Bizipozako elkarteekin egindako galdeketa eta elkarriketatik jasotakoetatik ateratako ondorioak eta elkarteen testigantzak aurkeztu zituen bertan.

06. ELKARTEEN ARTEKO EZAGUTZA ETA KOHESIOA

V. Jardunaldia : COVID-19a Bizipozan: Bizipenak, gogoetak eta ikaskuntzak.

2021 urtean Bizipozako V.Jardunaldia burutu dugu: “ COVID-19a BIZIPOZAN: BIZIPENAK, GOGOETAK ETA IKASKUNTZAK”

BIZIPOZA

5. JARDUNALDIA

**COVID-19A BIZIPOZAN:
BIZIPENAK, GOGOETAK
ETA IKASKUNTZAK**

2021ko ekainaren 19an. Goizeko 11.00tatik-13.00tara

EGITARAUA

1. PEIO MANTEROLAK eta NEREA LASOK elkarteekin batera osatutako lanetako ondorioen azalpena
2. Mahai ingurua: ateratako ikaspenak
 - NEKANE LEKUONA (Aspanogi elkarte)
 - AMAIA IRAZUSTA (Pausoka elkarte)
 - LUISMA LANDALUZE (Gure Señeak elkarte)
 - JOSUNE TOQUERO (Bihotzez elkarte)
 - PEIO MANTEROLA (Bizipoza elkarte)
3. Parte hartze librea
4. Konklusioak JOXE MARI AGIRRETXEREKIN

ONLINE ETA PRESENTZIALKI

Logos: 25 URTE, DANOBATGROUP, Irizar, Gipuzkoako Foru Aldundia, ETORKIZUNA ORAIN, kutxa

Aurtengo jardunaldiak, SARS-cov-2 birusaren pandemiak *Bizipoza* egitasmoko familia edo elkarte ezberdinetan eragindako bizipenez hausnartzea eta bertatik ikasitakoa helaraztea izan du helburu.

Hori dela eta, batetik, elkarte zein familiekin batera burututako ikerkuntza bat osatzeko hautua hartu genuen eta ondoren ekainaren 19an Jardunaldi irekia antolatu genuen eta bertan testigantza zuzenak partekatzearekin batera mahaingurua ere eraman zen aurrera.

Ikerketa egiteko 2 bide erabili dira:

- 1.- Nerea Lasok Aspanogi eta Aspanovas elkarteetan zentratutako azterketa burutu du.
- 2.- Peio Manterolak Aspanogi eta Aspanovas elkarteez gain, Bizipozako beste elkarte guztien azterketa burutu du.

1.- Nerea Lasok Aspanogi eta Aspanovas elkarteetan zentratutako azterketa burutu du.

Nerea Laso Peña-k Gizarte eta hezkuntza eremuen ikerketako unibertsitate masterra-ko gradu amaierako lana Bizipozako elkarteekin elkarlanean burutu du, zehazki Aspanovas eta Aspanogi elkarteekin. Berak egindako lanaren izenburua eta helburua “ Covid 19aren pandemiak minbizia izan duten haurrengan eta haien familiengan duen eragina eta horiek garatu dituzten egokitze estrategiak: Aspanogi eta Aspanovas erakundeek kasu azterketa” izan da.

COVID-19tik eratorritako pandemia egoerak haurrengan, besteak beste eragin zuzena izan du. Hilabete gutxitan bizitzeko modua erabat aldatu da eta horek inpaktu handia izan du alderdi askotan.

Ikerketa honetan pandemia egoeran minbizia duten edo aurretik izan duten haurrengan eta haien familiengan izandako inpaktua ezagutu nahi izan da. Horretarako, pandemia aurretik gaixotasuna diagnostikatu izanagatik garatu duten erresilientziaren nondik norakoak ezagutu dira. Ondoren, hilabete hauetan bizitako zailtasunak eta oztopoak identifikatu dira eta aurretik bereganatutako estrategia kognitibo, emozional eta harremanezkoetatik pandemia egoeran lagungarri zeintzuk egin zaizkien ikertu da. Hipotesia nagusia, hurrek eta haien familiak erresilientziaren abaroan aurrez bereganatutako baliabideekin pandemia egoeran bizitzeko bestelako baliabideak izan dituztela da.

Ikerketa hau egiteko ikerketa kualitatiboa hautatu da, kasu azterketa desberdinak eginez. Bizipoza egitasmoko kide diren Gipuzkoako haur minbizidunen familia elkartearekin (Aspanogi) eta Baikaiko haur nminbizidunen elkartearekin (Aspanovas) egin da lankidetzaz, eta hamar partehartzailerekin elkarriketa erdi estrukturatutako burutu dira datuak biltzeko.

Ikertata emaitzei dagokienez minbizia izan duten haurren familiei aurrez garatutako estrategiak pandemia garaian lagungarri egin zaizkiela ondorioztatu da.

Lan honekin kolektibo honek duen esperientziatik eratorritako irakaspenak atera dira, bai beste kolektibo batzuentzat baliagarriak izan daitezkeelako baina Hezkuntza eremuan estrategia berriak itxuratzeko ere.

2.- Peio Manterolak Aspanogi eta Aspanovas elkarteez gain, Bizipozako beste elkarte guztien azterketa burutu du.

2020 urteko jardunaldia egiteko, Peio Manterolak bere master bukaerarako burutu zuen ikerketa izan genuen oinarri. Bizipoza egitasmoko elkarteko kideen ongizatearen, eskubideen oparotasunaren eta bizi duten egoeraren zergatiak aztertzea eta ulertzera eramatera izan zen 2020 urteko bere ikerketaren helburua.

Aurten, Nerea Lasok Aspanogi eta Aspanovas elkarteekin egin duen ikerketa lana osatzeko helburuarekin, Peio Bizipozako beste 34 elkarteekin ikerketa lana burutu du. Ikerketa honen helburu nagusia, COVID-19ak Bizipozako elkarteengan izandako eragina aztertzea izan da. Zehazki, COVID-19aren ondorioz hartutako neurrien, esparru ezberdinetan izandako erronken eta etorkizunera begira duten esperantzen inguruan zentratu du ikerketa hau .

Azterketa hau egiteko markatutako bideak elkarriketa irekiak eta test moduko bi galdetegi izan dira:

Lehenik, zazpi familia eta elkarte bat elkarriketatatu ditu. Alde batetik, *Afestta*, *Arnasa*,

Bihotzez, *Gure Señeak*, *Hiru Hamabi*, *Pausoka* eta *Ulertuz* erakundeetako kide diren gurasoei egin zaizkie elkarriketak. Bestetik, aldiz, hezkuntza-eremuko ikuspegi bat jasotzeko asmotan, *Seaskako Integrazio Batzordeko* arduradunak elkarriketatatu dira.

Bigarrenik, bi galdetegi kuantitatiboren erabilera egin du, zeinak ikerketa honetarako espezifikoki sortu dituen. Bata familiei bidali zaie eta, horrela, koronabirusak orokorki,

harremanetan, familian eta hezkuntzan izan duen eraginaz galdegin zaie (84 erantzun jaso dira denera). Bestea, *Bizipozako* elkarte guztiei bidali zaie eta 35tik 28 erakunderen erantzunak jaso dira COVID-19aren ondorioz hartutako neurrien, esparru ezberdinetan izandako erronken eta etorkizunera begira duten esperantzaren inguruan.

Peio Manterolak buruturiko azterketa eta jasotako emaitzak <https://bizipoza.eus/services/bizipoza-jardunaldiak-2021/> orrialdean dagoen dokumentuak ikusi daitezke.

V. Jardunaldia 2021eko ekainaren 19an burutu zen modu presentzialean eta online bidez ere, eta bideoz ere jaso dago jardunaldia Bizipozaren webgunean. Jardunaldi honetan, Peio eta Nereak beraien ikerketa lanen ondorioak aurkeztearekin batera, elkarte desberdinen testigantzak ere elkarbanatu zituten Aspanogi, Pausoka, Gure Señeak eta Bihotzez elkarteetako kideek.



V. JARDUNALDIA KOMUNIKABIDEETAN

- › 2021eko Uztailean, jardunaldia oinarri hartuta, BERRIA komunikabideak erreportaia publikatu zuen: <https://bizipoza.eus/bizipoza-berria-egunkariaren-lehen-orrialdean/>



- › Jardunaldia oinarri hartuta, Xaloa telebistak erreportai bat egin zuen : <https://bizipoza.eus/elkarrizketak-xaloa-telebistan/>

BIZIPOZAREN WEBGUNEAN INFORMAZIOA:



2021
Jardunaldiak



Prentsa

07. KOMUNIKAZIO OROKORRA

Webgunea

<https://bizipoza.eus/>

2019an sortutako Bizipozaren marketing digital plana aurrera eramaten ari gara Sorland komunikazio agentziarekin batera, eta 2021 urtean webguneko atalen berrantolaketa burutu dugu.

Aurten egindako analitari dagokion balorazio orokorra hauxe izan da:

- › Aurten **aurreko urtean baino %54,17 bisita gehiago** jaso dira.
- › **Bisiten kalitatea ona da**, izan ere, datu orokorrekin alderatuta bisiten batz-beste iraupena (3:11 minutukoa) luzea da, batz-beste orrialde ikusien kopurua (6,32 orrialde) altua da eta errebote tasa (%3,23) baxua da, hau da, interesik gabe saioa ixten duten erabiltzaileak gutxi dira.
- › Erabiltzaile gehienak **bilatzaileetatik eta zuzenean sartzen dira webgunera**.
- › **Sare sozialetatik datorren trafikoa** batez ere Facebooketik dator.
- › Bisiten %56,59a **“Kantu eta bideoklipak” orrialdetik igaro dira**.

Sare Sozialak. Facebook, Twitter, Instagram.

2021 urtean sare sozialetan presentzia indartuz goaz, Bizipozaren orria atsegin duen komunitatea haundituz. Asteroko lana izaten ari da sare sozialak elikatzearena. (Facebook, twitter eta Instagram). Sare sozialetan, Bizipozak aurrera eramaten dituen ekimenak gizarteratzeaz gain, Bizipozako elkarteek ekimenak ere zabaltzen dira. Elkarteek ospatzen dituzten nazioarteko egunei ere indarra ematen diegu sare sozialen bidez, elkarte hori, gai hori, balore horiek indartuz.

Adibide moduan, Nazioarteko egunen berri emateko sortutako publikazio batzuk ondorengoak izan dira 2021 urtean:



Sare sozialetako jarraitzaileak haunditzeko sortutako publikazio adibidea:



Komunikabideak

Pixkanaka, komunikabideen sarea ere indartuz goaz, urtean zehar komunikabide desberdinekin harremanak landuaz. Kantu eta bideoklipen proiektuarekin adibidez, lanketa haundia egin da komunikabide desberdinekin eta lanketa hori urte osoan zehar nabaritu da, komunikabideekin elkarlana urte osoan zehar mantendu eta indartu baita.

Bizipozaren webgunean aurkitu daitezke komunikabideetako lotura guztiak, ondorengo atalean: <https://bizipoza.eus/prentsa/> 2021 urtean, berrantolatu egin dugu atal hau eta publikatutako berriak sailkatu egin ditugu. Orain artean sortutako publikazioak asko izan direla ikusita sortu da berrantolaketa hau egiteko beharra: Biba Zuek, Irratia, Online prentsa, Prentsa, Prentsa idatzia eta Telebista atalak sortu ditugu.

Eitb-ko BIBA ZUEK saioan asteroko jarraipena egin diote kantu eta bideoklipen proiektuari, beraz, webgunean ere atal berezi bat sortu dugu saio guzti hauek jasotzen dituen. <https://bizipoza.eus/biba-zuek/> . Nahiz eta BIBA ZUEK saiorako atal berezia sortu, telebista saio guztiak jasotzen dituen atala ere indarrean jarri dugu, eta bertan ikusi daitezke hainbat telebista saio: Nerea Godoy izandako Sukalerría saioa, Hamaika telebistako saioak, EITBko albistegietako saioak, Xaloe telebista.....

08. BOLUNTARIO SAREA INDARTZEKO EKIMENAK

EHU-ko Gizarte Langintza fakultateko ikasleekin boluntariotzaren inguruko solasaldia

Otsailaren 16ean EHUko Gizarte Langintzako fakultateko ikasleekin boluntariotzaren inguruko solasaldia burutu genuen “Suspertze Komunitarioa” ikasgaiari lotuta.

27 ikaslerekin Bizipoza aurkeztu eta boluntariotzaren inguruan hausnartzeko aukera izan genuen. Modu honetan, gazteen iritzia eta ahotsak entzuteko aukera izan genuen eta era berean, gazte hauek ere Bizipoza ezagutzeko aukera izan zuten. Era berean, Bizipozako elkarteak ezagutu eta bertan boluntariotza lanak egin ahal izateko aukerak ezagutu ahal izan zituzten.

Bizipoztu zaitez, izan bazkide izan boluntario kanpaina

SARE SOZIALEN BIDEZ AURRERA ERAMANDAKO KANPAINA

Azaroan, “Bizipoztu zaitez, izan bazkide izan boluntario” boluntarioak erakartzeko kanpaina berria abiarazi genuen. 2020 urtean, berrikuntza izan zuen kanpainak: Elkarte bakoitzak boluntariotza lanak burutuko dituzten lagunak zein lan konkretuetan aritzeko beharra duten azaldu ziguten eta horren arabera kanpaina egin genuen. Modu honetan, boluntariotza lanak burutzeko izena eman zuten boluntarioak zuzenean elkarte zehatz batekin jarri genituen harremanetan.

2020 urtean abiatutako kanpaina positiboa eta eraginkorra izan zela ikusirik, 2021 urtean ere boluntariotza kanpaina modu berean egitea erabaki dugu. Honetarako, aurten boluntarioak beraiek izan dira protagonista kanpaina zehar. Iada Bizipozako boluntario diren norbanakoekin harremanetan jarri eta beraiek sortu dituzte boluntariotza kanpainarako bideoak eta mezuak. Jendarteari beraien esperientzia helarazi diote eta boluntario izateko deia luzatu diete. 2020 urtean egin genuen moduan, zein elkartetan zein motatako boluntariotza eraman dezaketen aurrera ere jakinarazi dugu kanpainaren bidez.

BIZIPOZAREN WEBGUNEAN INFORMAZIOA



Bizipoztu

TOKIAN TOKIKO BOLUNTARIOTZA: BIZIPOZA KM0

Bestetik, Boluntariotza KM0 gida didaktikoa sortzeko bidea martxan jarri dugu aurtengoan. 2021 urtean Bizipoza proiektuaren zenbait proiektu zehatz baliatu ditugu aurrera begira Boluntariotza KM0 gidaren oinarri izan daitezkeen ekimen praktikoak burutzeko.

Herrian herriko eragile diferenteak elkartu eta ekimen amankomunak sortu ahal izateko tresna sortzera goaz TOKIAN TOKIKO BOLUNTARIOTZA: BIZIPOZA KM0-ren bidez. Tokian tokiko Elkartasuna, inklusioa, hezkuntza eta kultur eragileen arteko sareak indartu eta hauek sortuta ekimenak burutzeko baliabideak emango ditu TOKIAN TOKIKO BOLUNTARIOTZA: BIZIPOZA KM0 tresnak.

Aurten burututako ekimen praktiko hauek izango dira ere gidaren oinarri teorikoak praktikara nola eraman azalduko duten ekimen eredugarriak. Bizipoza jaiaren barruan Bergarako eragile, elkarte, norbanako boluntario norbanako eta instituzioak Bizipozako elkarteekin elkarlanean osatutako aurkezpen ekitaldia izan da ekimen praktiko bat. Gares-en bertako eragileekin antolatutako aurkezpen ekitaldia da beste adibide bat.

Bi praktika hauek ere aurten osatzen hasi garen gidaren oinarri teorikoan txertatu ditugu.

09. BILBOKO EGOITZA ETA GIDA DIDAKTIKOEN PROIEKTUA

Bilboko pisua

2020 urtean zehar Bilboko egoitzaren aurrera begirako erabileraren inguruko proiektua zehazten hasi ginen eta Uribarri auzoko eragileekin harremanak egiten hasi ginen.

2021 urtean Bizipozak hainbat gida didaktiko sortzeko bideari ekin dio eta lan hau aurrera eramateko, Bilboko egoitza hau izango da gida hauek sortuko dituen pertsonak lan egingo duen tokia. Beraz, 2021ean martxan jarri ditugu 2 proiektuak: gidak egiteko bidea eta Bilboko pisua egokitu dugu.

Dagoeneko Bilboko pisan egunero lanean langile bat hasia da 2021 urtean, eta era berean Bizipozako elkartearen eskura pisua jartzeko bideari ekin zaio.

Gida didaktikoen proiektua eta helburua

Bizipoza elkartetik “Elkartasunean hezi eta bizi: Bizipoza gida” eta “Tokian tokiko boluntariotza: Bizipoza KM0” tresna sortzera eta zabaltzera goaz, hezkuntza formala, hezkuntza ez formala eta herrigintzan inklusioa eta elkartasunaren gaiak landu ahal izateko, gizarteko errealitate desberdinen inguruko sensibilizazioa indartzeko eta guztiontzat beharko lukeen mundua eraikitzeke aurrerapausoak emateko.

1.- Hezkuntza formal eta ez formalean garatzeko ELKARTASUNEAN HEZI ETA BIZI: BIZIPOZA GIDA sortuko dugu.

2.- Herrigintzan lantzeko “TOKIAN TOKIKO BOLUNTARIOTZA: BIZIPOZA KM0” boluntariotza ekimen berritzailea sortuko dugu. Tokian tokiko boluntariotza : Bizipoza KM0 tresna hau ere aberastuko du “Bizipoza erein, hazi eta loratuz :Gida didaktikoak”.

HEZKUNTZA FORMALA:

Haur hezkuntzatik unibertsitaterainoko eremuetarako unitate didaktikoak sortuko dira.

HEZKUNTZA EZ-FORMALA:

Aisialdia, euskara eta kulturaren eremuetarako unitate didaktikoak sortuko ditugu.

- › **Aisialdia:** Ludotekak, gazteklubak, kuadrilategi, faktoria, udalekuak.
- › **Euskara:** Topagunea, Uema...
- › **Kultura:** Bertso eskolak, dantza eskolak, musika eskolak, antzerki eskolak eta kantu eskolak.

HERRIGINTZA

Herrian herriko eragile diferenteak elkartu eta ekimen amankomunak sortu ahal izateko tresna sortzera goaz TOKIAN TOKIKO BOLUNTARIOTZA: BIZIPOZA KM0-ren bidez. Tokian tokiko Elkartasuna, inklusioa, hezkuntza eta kultur eragileen arteko sareak indartu eta hauek sortuta ekimenak burutzeko baliabideak emango ditu TOKIAN TOKIKO BOLUNTARIOTZA: BIZIPOZA KM0 tresnak.

TOKIAN TOKIKO BOLUNTARIOTZA: BIZIPOZA KM0 izango da Bizipozaren komunitateko pertsonen boluntariotza sustatzeko bide berritzailea, boluntario bakoitzari bide emango diona bere herrian egitasmoak bideratzeko herri bakoitzean elkartasuna, inklusioa, hezkuntza eta kultur eremuetan lanean dabiltzan pertsonen arteko sareak sortuz , indartuz eta baliatuz. Sare honek erakunde publikoekin ere elkarlana bideratuko du, horrela, komunitate osoaren elkarlana indartuz.

Proiektu hau 2021 urteko urrian jarri dugu martxan eta 3 urteko iraupena izango du sortze eta zabaltze prozesuak.

**Eskerrik askooo,
elkarrekin ari gara
guztiontzat beharko lukeen
mundua eraikitzen!!!!**



BIZIPOZA